

SUFRIMENDUAREN KARTOGRAFIA INTEGRALA HELBURU emaitzen analisia

Foro Sozial Iraunkorra
Bizikidetzeta eta memoria lan taldea

2018ko urria



Bake
prozesua
indartzeko
Foro
Soziala

Foro
Social
para impulsar
el proceso
de Paz

Forum
Social
pour impulser
le processus
de paix

Social Forum
to promote the Peace process

EDUKIAK

1. Atarikoak	05
2. Helburuak.....	07
3. Metodologia.....	11
4. Gauzatutako ekimenak	13
4.1 Hastapenak	
4.2 Gernika	
4.3 Bilbao	
5. Identifikatutako sufrimendua kategorien zerrenda.....	17
6. Datuen analisia	23
7. Ondorioak.....	29
8. Eranskinak	35
A. Dinamizatzaileentzako jarraibideen dokumentua.	
B. Gernikako Elai Alai aretoko “Bizikidetza eraikitzen” saioan jasotako sufrimendu motak.	
C. Bilboko Bilborock aretoko “Gazteak eta memoria. Elkarrekin bizitzeko, solastu” saioan jasotako sufrimendu motak.	

1. ATARIKOA

Foro Sozial Iraunkorrari buruz

Foro Sozial Iraunkorra da bake prozesua laguntzeko eta gatazkaren ondorioen konponbidea errazteko gizarte zibileko hainbat erakunderen artean osatutako espazio dinamizatzailea.

Gaur egun, 18 entitatek osatzen dute, beste norbanako askorekin batera: ELA, LAB, CCOO, Steilas, ESK, Ahotsak, Bake Bidea, Uharan, Baketik, Gernika Batzordea, Sare, Etxerat, Paz con Dignidad, Bilgune Feminista, Herri Eliza, Antxeta Irratia, Hitz&Hitz eta Egiari Zor Fundazioa.

Foro Sozial Iraunkorra 2016. urteko ekainean sortu zen. Lanerako erreferentetzat ditu 2013. urtean Bilbon eta Iruñean ospatutako lehen Foro Sozialetik ondorioztatutako 12 gomen-dioak. Horiek, honako 5 lan ildotan laburbildu daitezke:

1. Bake prozesuaren erronka nagusienei aurre egiteko oinarritzko kontsentsuak lortzea.
2. Armagabetze eta deuseztatze prozesu bat diseinatzea, martxan jartzea eta bururaino eramatea.
3. Preso edo ihesean dauden pertsonen bergizarteratzea erraztea.
4. Giza eskubideak sustatu eta bermatzea.
5. Iraganari zintzotasunez aurre egiteko, egia eta memoria babestu eta zaintzea, horrela etorkizuneko bizikidetzaren oinarriak eraikitzeko.

Gogoetabideak

Foro Sozial Iraunkorrek 3 lan esparru nagusi izan ditu 2016an sortuaz geroztik: armagabetzeari zegokiona (2017. urtean desegin zen jadanik); preso, iheslari eta deportatuen eskubideei dagokiena; eta memoria eta bizikidetzak gaiei dagokiena.

Horrez gain, beste hainbat lan ildo tranbertsal ere baditu: bake prozesuan emakumeek egindako ekarpena balorean jartzea helburu duen lan taldea; hitza “desarmatu” deritzona eta lengoaiaren erabilera aztergai duena; eta beste nazioarteko beste bake esperientziei erreparatu asmo diena, horiengandik ikasteko.

Esparru bakoitzaren gainean jarduten diren lantaldeak “Gogoetabide” izena dute eta Foroa osatzen duten eragileetako ordezkari eta norbanakoak dira berauetan biltzen direnak, hilean behineko maiztasunez

Hain zuzen ere, memoria eta bizikidetzak Gogoetabidearen baitatik sortu zen “Sufrimenduaren kartografia integral baterantz” egitasmoa.

2. HELBURUAK

Giza eskubideen urraketak eta “bestelako” sufrimenduak

Giza eskubideen urraketa bat zer den zehazterako orduan Foro Sozial Iraunkorraren erreferentziazko markoa Giza Eskubideen eta Oinarrizko Askatasunen Europako Hitzarmena da. Berau, nazioarteko hitzarmen bat da, helburu duena Europan giza eskubideak eta oinarrizko askatasunak babestea. 1950eko azaroaren 4an onartu zuen Europako Kontseiluak (1948. urteko Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren izpirituari bere eginez).

Hitzarmen horren arabera, giza eskubideen urraketak dira:

- Erahilketa.
- Tortura.
- Esklabotza.
- Lan derrigortuak.
- Askatasun indibidualen jazarpena.
- Segurtasun pertsonalerako eskubidearen urraketa.
- Epaiketa justua izateko eskubidearen ukazioa.
- Bizitza pribatua eta intimoa izateko eskubidearen ukazioa.
- Pentsamendu, adierazpen eta erlijio askatasunaren eskubidearen kaltetzea.
- Elkarretaratze askerako eskubidearen urraketa.
- Ezkondu eta familia bat sortzeko eskubidearen urraketa.
- Diskriminazioa.

Hortaz, konplexua da oso, euskal gatazkaren kasuan, giza eskubideen urraketan eta bestelako sufrimenduen arteko muga marraztea. Testuinguru politikoak, biolentziaren eragiletzak, tokian tokiko legediak... eragin handia dute. Noski, urraketa batzuen kasuan ez dago inolako zalantzarik: erailketak, torturak, bahiketak... eskubide urraketa larriak dira. Baina, beldurra? Urteetan luzatutako askatasun gabezia? Salbuespenezko legedia baten aplikazio sistematikoa?

Urraketa bat zer den edo zer ez den bereiztea ez dagokio Foro Sozial Iraunkorrari. Gu, bake prozesua blokeatzen duten elementuak askatzen saiatzeko ekarpen positibo bat egiteko bo-kazioaren sortu ginen, eta bizikidetzeta eta memoria gaiei dagokienez, egia osoa ezagutzea bermatuta, bizi izandako drama berriro errepikatu ez dadin ekarpen positibo bat egiteko. Hortaz, dagokiguna zera da: sufrimendu mota ahalik eta anitzenak biltzea eta horien existentzia euskal gizarteari jendarteratzea. Horretara dator sufrimenduaren kartografia hau.

Egia osoa eta enpatia

Etorkizuneko elkarbizitzarako oinarriak sortzeari ekitean datza bake prozesu batek, pertsona ororen eskubide guztiak errespetatuaz bermatzeko gertatutakoa berriro ez dela errepikatuko. Horrek, ezinbestean, bizi izandako guztiaren eta gertakari horien zergatien gainean jardutea eskatzen du.

Horrez gain, azken urteotan euskal jendarteak abiatu duen bakea erakitze bidean, enpatia lantzea ezinbestekoa da. Horretarako, oinarritzkoa da erreparatzea urte luzetan gure egunerokotasunaren parte izan diren gertakari horiek nola bizi izan ditugun batzuek eta besteek.

Horrela, ohartuko gara poliedrikoa izan den eta oraindik ere baden errealitate baten aurrean gaudela, min mota anitzak bere baitan hartu dituen; gainazal sozialera oraindik azaleratu ez diren sufrimenduak dauden eta egongo diren errealitate bat, hain zuzen, baikoitzak bere lubakitik bizi izandakoak.

Kontakizun horiek guztiak, sufrimendu horiek guztiak, gatazka berberaren ondorio dira eta beraz, memoriaren zati behar dute izan, giza eskubideen urraketa izendapena izan ala ez. Beraz, gatazka konpontzeko eta elkarbizitza eraikitze, ezinbestekoa da horien aitor-tza, dagokien tokia ematea.

Horri guztiari erantzun bat emateko asmotan ekin genion “sufrimenduaren kartografia integrala” ekimenari. Horren bidez, pertsonen esperientzian eta ezagutzan oinarrituta, sufrimendu mota ahalik eta gehienak identifikatzera heldu nahi izan dugu, iraganean gertatutakoa ezagutzea bermea baita halakorik etorkizunean ez errepikatzeko. Funtsean, tresna bat sortu nahi izan dugu, gatazkaren baitan bizi izandako sufrimendu guztiak mahai gainean jarriko dituen eta, horrela, lagunduko duena pertsonok bizi izandako minak gizarteratzen eta gatazkaren biktima guztiari dagokien egia, justizia eta erreparazioa eskaintzen.

Zenbat buru, hainbat aburu

Aurkezten duguna ez da amaituta dagoen dokumentu bat, abian den ekimen bat baizik. Kartografia “integralerantz” norabidea jarrita duen dinamika da abiatu duguna, gero eta ekarpen gehiago bere baitan hartzeko bokazioa duena. Sufrimendua oso pertsonala den zerbait baita, pertsona adina forma dituen.

Hori dela eta, bakoitzak, bere bizipenaren arabera, azentua elementu batzuetan edo besteetan jartzea beharrezkoa da, kontakizunak ezberdinak izatea, memoria poliedriko bat eraiki ahal izateko. Garrantzitsuena da ziurtatzea elkarbizi behar duten errelato guztiek gatazkaren baitan gertatu den oro aintzat hartzen dutela eta kontatzen dutela. Hau da, ez dela ezer kontatu gabe uzten. Horretara ere badator kartografia hau.

3. METODOLOGIA

Norbanakoen esperientziak ezagutu eta sufrimendu ahalik eta anitzenak identifikatzeko hainbat lan saio antolatu eta dinamizatu ditu Foro Sozial Iraunkorrek 2017 eta 2018 urteetan zehar.

Helburu nagusia ahalik eta modu zabalenean gatazkaren baitan jazotako sufrimenduak zein izan diren eta zer suposatu duten jasotzea izan da, aldi berean zehatza eta zabala den panorama bat islatu asmoz.

Horretarako hiru printzipio hartu ditugu ardatz:

1. **Errespetua:** partaide bakoitzak gatazkaren inguruko bizipenak plazaratzea da helburua, hurkoarekin konpartitu eta gainerakoen bizipenak entzunez.
2. **Metaketa:** ahalik eta ekarpen gehien eta anitzenak gehitzea.
3. **Aniztasuna:** norberaren bizipenak plazaratzea nahiz eta beste partaideen bizipenekiko desadostasuna islatu.

Hortaz, kontzeptuak nahi adina errepikatzeko aukera eman da. Era berean, argi utzi da akordioetara heltzea ez dela inondik inora ariketaren helburua.

Ekarpenak egiteko partaide bakoitzari bere esperientzia eta ezagutzan oinarritzeko eskatu izan zaio. Ez da ideiarik zentsuratu edo mugarik jarri. Ariketa ireki bat izan da.

Work-coffee delako metodologia bidez jasotzen dira ekarpenak:

- Lehenik, partaideak ausaz, modu aleatorioan, lan-taldetan banatu dira.
- Ostean, bakoitzari modu anonimoan post-it-etan gatazkaren ondoriopeko sufrimendu gisara identifikatzen duena zer den idazteko eskatu zaio. Bakarkako ariketa horri 5-10 minutu artean eskaintzen zaizkio. Ez da aurretik inolako erreferentziarik eman.

- Osteen, banan-banan jasotako ideiak paneletan multzokatzen dira.
- Erreferentziatzen Foro Sozial Iraunkorreko Memoria eta Bizikidetzaren Gogoetabideak bere lehen hausnarketan identifikatutako 4 bloke handiak eskaini dira, nahiz horiekin zertan ados egon ez dagoela aditzera eman den eta antolaketa ezberdin bat proposatzeko aukera zabalik dagoela adierazi den:
 - Bizitzeko eskubidearen urraketak eragin dituen sufrimenduak.
 - Ekonomiarekin lotutako ondorioek eragin dituzten sufrimenduak.
 - Eskubide zibil eta politikoen urraketak eragin dituen sufrimenduak.
 - Osotasun fisiko-psikikoaren kaltetzeak eragin dituen sufrimenduak.
- Partaide guztiek identifikatu dituzten sufrimenduak zein izan diren azaldu osten, gai-nontzekoak entzun ostean ideia gehiago sortu diren galdegin da. Horiek ere idatzi, eta paneletan gehitu dira.
- Taldekideen artean sortutako eztabaidatik sufrimendu gehiago ondorioztatzekotan, dinamizatzaileak jaso ditu. Horiek zein paneletara gehitu talde osoak erabaki du.

Egindako lan-saioetan baliaitutako oinarritzko metodologia da hori. Testuinguru bakoitzaren berezitasunei erreparatuta, ordea, moldaketak egin izan dira (jende kopurura egokitzeko, aurrez erreferentziaren bat emateko edo ez emateko...).

Dinamizatzaile bolondresen ardura izan da saio bakoitzean sortutako edukiak jasotzea, antolatzea eta sistematizatzea. Horiekin Foro Sozial Iraunkorreko bizikidetzaren eta memoria Gogoetabideko kideek prestaketa saioak egin dituzte aurrez, dinamikaren helburuak ongi azaltzeko eta egin beharreko lana zein den argi definitzeko.

4. GAUZATUTAKO EKIMENAK

4.1 Hastapenak

Foro Sozial Iraunkorraren bizikidetza eta memoria Gogoetabidea

“Sufrimenduaren kartografia integralerantz”, lehen pausua, Foro Sozial Iraunkorraren bizikidetza eta memoria lan taldearen¹ baitan eman zen.

2017. urtearen hastapenetan, lan taldeko partaideen arteko lan saioa antolatu zen. Honen helburua izan zen ahalik eta sufrimendu mota gehienak identifikatzeko ariketa kolektiboa egitea.

Hausnarketaren abiapuntua honakoa izan zen: gatazkaren baitan, giza eskubideen urraketatzat hartu ezin zitezkeen ekintza eta jarduerak ere sufrimendu asko eta anitzak eragin izan dituzte, eta horiek aitortzea eta lantzea ere beharrezkoa da.

Hortaz, lan taldeko partaideen esperientzian oinarrituta, sufrimendu horiek zein ziren identifikatzeko lanari ekin zitzaion eta, ostean, horiek kategoriatan antolatzeari.

Kategoriak definitzea ez zen uste bezain sinplea izan, ordea. Hitzen atzean biltzen denak errealitatea modu jakin batean marrazten du.

Uneoro, marka ideologikoak saihesteko nahia izan zen Gogoetabidearen ardatz nagusietako bat. Horretarako, enpatia ariketa bat beharrezkoa izan zen: norberaren terminologiaz kontzientzia hartu eta zabalagoa eta inklusiboagoa pentsatzen zen beste termino batzuen erabilera hobetsi beharra zegoen. Kontzeptuak ez baitziren, inondik inora, neutroak.

Gogoetabidearen baitan egindako ariketan esperientzia asko eta asko falta zirela nabaria zen, ordea. Hori dela eta, kartografiari prozesu izaera emateko erabakia hartu zen, eta ariketa amaitutzat eman beharrean, ekarpenak gehitzen jarraitzeko saioa berriak antolatzea. Horrela bilakatu zen “sufrimenduaren mapa” prozesu, “sufrimenduaren kartografia integralerantzko” bide, prozesu.

1. Bizikidetza eta memoria Gogoetabidearen partaideak dira: Uharan, Ahotsak, Hitz&Hitz eta Egari Zor eragileak; eta Iñaki Olalde, Iñaki Gonzalez Murua, Aitzpea Leizaola norbanakoak.

4.2 Gernika

Hitzorduak: bizikidetza eraikitzen

Foro Sozial Iraunkorreko Memoria eta Bizikidetza Gogoetabideak "Hitzorduak" ekimena antolatu zuen 2017ko apirilaren 28an. Data eta lekua esanguraz beteak ziren: Gernikako bonbardaketaren 80. Urteurrena gogoan, sufrimenduaren errekonozimendua eta ez errepi- kapenaren bermearen beharra ardatz hartuta.

Abiapuntu gisara herri mailan antolatutako ekimenak bilduko zituen bi mahai inguru prestatu genituen, azken urteotan bizikidetza alorrean lanean dihardute bizikidetza foro lokalei ahotsa eman eta eurengandik ekarpenak jasotzeko asmoz.

Lehenengoan, foro lokal horiek dinamizatzen diharduten entitateetako ordezkariak izan genituen, tokian tokiko foroen funtzionamendu eta prozedurei buruzko xehetasunak emanez. Honela, Berbarilekua, Baketik eta Bakeola bizikidetzan espezializatutako entitateeta- ko mintzakideak parte hartu zuten, bai eta aitzindari izandako Ahotsak ekimeneko ordezkari bat ere.

Ondotik, bigarren mahai inguruan ordurako jadanik publikoak ziren herritar foroetan parte hartutako norbanakoak hartu zuten parte, euren esperientzia Elai Alai artean bildutako 85 lagun inguruekin partekatzen.

Hitzorduak ekimenak bazuen baina, beste helburu eta motibazio bat: entzule soil izatetik haratago, bertaratutakoak ariketa praktikoa egitera gonbidatzea. Hori ekimenaren 2. atalean gauzatu zen, sufrimenduaren kartografia integrala osatu asmoz.

Gernikako "Hitzorduak" saiora gerturatutakoak ausaz sortutako taldetan bildu ziren. Izen-emate mahaian bertaratutako bakoitzari 1-4 bitarterako zenbaki bat zuen txartela eman zitzaion, ariketa praktikoko taldeak osatzeko. Honela, mahai inguruak eta Foroko hitzartzearen ondoren taldeak osatu ziren.

Guztira 4 talde izan ziren. Horietako hiru, Elai Alai antzokiaren ondoan dagoen erakustaretoan bildu ziren. Laugarrena, berriz, Antzokitik oso gertu dagoen udalaren beste lokal batetan.

Partehartzaileak borobilean eserita, ariketaren nondik norakoa eta metodologia azaldu eta 90 minutuz jardun ziren euren bizipen eta esperientzietatik ekarpenak egiten.

Antzokiaren itxiera orduak mugatu zuen berez guztiz dinamikoa eta ekarpen oso interesgarriak biltzeko aukera eman zuen lehen saio hura.

- **Eguna:** 2017ko apirilaren 28a.
- **Tokia:** Gernikako Elai Alai aretoa.
- **Parte hartzaileak:** 50 inguru.
- **Lan taldeen osaketa:** 4 talde.
- **Deialdia:** Foro Sozial Iraunkorrak Hitzorduak ekimenra egindako gonbidepane bidez.

4.2 Bilbo

Gazteak eta memoria.

Elkarrekin bizitzeko solastu.

Sufrimenduaren kartografia integralerantz.

Lan saio honen helburua izan zen gazteen esperientzian eta ezagutzan oinarrituta sufri-menduak identifikatzea, horien gainean kontzientzia hartzeko, gatazka nola transmititu den hausnartzeko eta modu kolektiboan sufrimenduaren kartografia integral baten osaketari ekarpena egiteko. Horretarako, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluarekin elkarlanean jardun ginen.

Xehetasunei dagokionez, lehenik EGKren “Gazteon aukera: elkarbizitzaren erronka” dokumentala proiektatu zen (18.30-19.30). Bertan jasotzen da erakunde honek egindako lana zein izan den bake positiboaren alde. Ostean, parte hartzaileak lan talde txikitik banatu ziren hausnarketari ekiteko (19.30-20.30).

- **Eguna:** 2018ko maiatzaren 10a.
- **Tokia:** Bilboko Andra Mari Mesedetakoaren eliza zaharra, gaur egungo Bilborock.
- **Parte hartzaileak:** 18 eta 30 urte arteko 12 gazte, 6 emakumezko eta 6 gizona.
- Lan taldeen osaketa: 6 pertsonako 2 lan talde osatu ziren, parte hartzaile bakoitzari ausaz zenbaki bana emanda.
- **Deialdia:** EGKren harreman sarearen bidez egin zen, eta baita Foro Sozial Iraunkorren sare sozialen bidez ere.

5. IDENTIFIKATUTAKO SUFRIMENDU KATEGORIEN ZERRENDA

Gogoetabideko kideok honako kategoriatan bildu ditugu post-itetan jasotakoak:

Bizitzeko eskubidearen urraketa eragin duten sufrimenduak

Heriotzak.

- Biolentzia baliatu duten agenteen ondorioz (ETA, Estatua, talde parapolizialak, GAL, Batallón Vasco-Español,...).
- Salbuespenezko espetxe-politikaren ondorioz.
- Exekuzioen ondorioz.
- Exekuzio extra-judizialen ondorioz.
- Polizia gehiegikeriaren ondorioz.
- Enfrentamenduen ondorioz.
- Behartutako desagertzeen ondorioz.
- Drogaren erabilera kalkulatuaren ondorioz.
- Dispertsioaren eta salbuespenezko neurri politikoaren ondorioz.
- Norberaren buruz beste eginda.

Gaixotzea.

Mina.

Ondorio fisikoak.

- Zauriak.
- Mutilazioak.

Ekonomiarekin lotutako ondorioak eragin dituzten sufrimenduak

Estortsio ekonomikoa / Zerga iraultzailea.

Ondarearekin lotutakoak.

- Ondarearen aurkako erasoak.
- Ondare pertsonalaren galera.

Isunak.

Gastu judizialak

- Abokatu gastuak.
- Fidantzak.

Boikotak: negozio jakinen kontra, marka jakinen kontra,...

Baliabide publikoei lotutakoak:

- Seguritate publiko eta pribatuaren erabilera desegokia/neurrigabea.
- Diru laguntzen banaketa: biktimen tratamenduan diskriminazioa, mailakatzea, indemizazioen ordainketan diskriminazioa.
- Gatazka egoera modu interesatuan mantendu nahi izatea onura ekonomikoa ateratzeko.

Osasun gastuak: medikuak, psikologoak, psikiatrak,...

Dispertsioak eragindako gastuak: lekualdaketak, egonaldiak etxetik kanpora, otorduak, lan-baimenak, ordu luzeak bidaiatzen...

Langabezia eta lan diskriminazioa:

- Urte luzez espetxeratuta egonagatik.
- Lanpostua utzi behar izanagatik.
- Inhabilitazioak.

Euskal Herriak gatazkaren ondorioz jasandako bisitari kopuruaren galera, ondorio ekonomiko kaltegarriak.

Eskubide zibil eta politikoak urratu dituzten sufrimenduak

Bahiketak.

Parte hartze politikorako eta biltzeko askatasunaren urraketa: ilegalizazioak, proiektu politiko eta sozialen kriminalizazioa.

Mehatxuak.

Polizia kontrolak.

Poliziaren akosoak, jazarpena, zirikatzeak.

Bizitza proiektua duintasunez nahi den tokian eraikitzeko eskubidea urratzea:

- Euskal Herritik joan beharra.
- Deportazioak.
- Irtetera derrigortzea, erbesteratzea.

Salbuespenezko espetxe politika:

- Dispertsioa.
- Espetxe-sailkapena.
- Atxiloketa prebentiboak.
- Sarekadak.
- Isolamendua.
- Inkomunikazioa.
- Osasunerako eskubidearen urraketa.
- Hezkuntzarako eskubidearen urraketa.
- Komunikaziorako eskubidearen urraketa.
- Zirkulazio askerako eskubidearen urraketa.
- Jarraipen polizialak.
- Ofiziozko abokatuen inposizioa.
- Mediku forentsearen inposizioa.
- Doktrina politikoen inposizioa (“dena ETA da”).

Justiziarako eskubidearen urraketa.

- Justiziaren erabilera arbitrarioa.
- Salbuespenezko tribunalak: Zaintza epaitegiak eta Epaitegi Zentrala.
- Ikerketa judizialean transparentzia falta.
- Kondena luzapenak.
- Espetxeratze prebentiboak.

Salbuespenezko legediaren aplikazioa, arbitrariotasuna.

Biktimen eskubideei lotuta:

- Diskriminazioa, kategorizazioa.
- Biktimarioen inpunitatea.
- Oroimen ariketen jazarpen eta debekuak.
- Biktimei egia jakiteko eskubidearen ukatzea.

Adierazpen askatasunaren urraketa:

- Egunkarien itxiera.
- Mobilizazioen debekua.
- Kargu publiko izateko zailtasunak.

Osootasun fisiko-psikikoa kaltetu duten sufrimenduak

Tortura.

Eskoltarekin bizi beharra.

Bahiketak.

Istripuak. Dispertsioaren ondoriozko arriskua errepidean.

Espetxeraketa.

Jazarpena, akosoa, zerrenda beltzak.

Mehatxuak.

Errepresaliak.

Boikotak.

Difamazioa.

Umiliazioa.

Irainak.

Biktimen minaren erabilera.

Inkomunikazioa.

Isolamendua.

Intimitatearen galera.

Birbiktimazioa.

Militantziaren ondoriozko sufrimendua (norberagan eta senitartekoengan).

Familia bizitza normalizatua gauzatzeko ezintasuna. Desegituratzea.

Komunikabideek modu intentzionatuan jokatu duten papera.

Gatazka politikoaren ukazioa.

Drogaren erabilera gazteriaren desaktibaziorako.

“Sindrome Norte”.

Genero arrazoiak direla medio jasandako biolentzia eta diskriminazio espezifikoa:

- Patriarkatuaren ondorio den biolentzia.
- Indarkeria matxista.
- Askatasun sexualaren kontrako erasoak.

Estigmatizazio sozialak eragiten duen mina:

- Aurreiritziak eta estereotipoak: ideologia arrazoiengatik, afiliazio arrazoiengatik, aisialdi inguruagatik...
- Itxura fisikoaren kriminalizazioa.
- Euskalduna izateagatik.
- Euskaraz hitz egiteagatik.
- Hiri espazioaren segregazioa, “guetizazioa”.
- Eskolan integratzeko zailtasunak ideologia dela medio.
- Arrazoi linguistikoak direla medio pairatutako jazarpena.
- Arrazoi soziologikoak direla medio pairatutako jazarpena, bereizketa.
- Proiektu politiko batekin publikoki bat egiteko beldurra.

Gatazkaren ondorio emozionalak:

- Kultura emozionalaren galera, emozioei uko egitea.
- Isiltasuna.
- Indiferentzia.
- Biiktimen senideen umiliazioa eta mina.
- Identitate arazoak, norbanakotasunaren galera.
- Biolentziaren legitimatzeak eragiten duen mina.
- Biolentziaren normalizazioa.
- Pentsakera kritikolari uko egitea, pentsakera kritikoa izateko gaitasuna galtzea.
- Gorrotoa.
- Infantilizazioa.

- Antsietatea, ezinegona.
- Frustrazioa.
- Amorrua.
- Inpotentzia.
- Haserrea.
- Beldurra.
- Hitz egiteari, iritzia emateari beldurra.
- Ahanztura.
- Errealitateari uko egitea.
- Enpatia eza.
- Izu-ikara (pánico).
- Bakardadea.
- Ezjakintasuna, informazioa eskuratzeko ezintasuna.
- Autokritikarako gaitasun eza.
- Etengabe kontrolatua izatearen sentsazioa.

6. DATUEN ANALISIA

Lehen pausuak

Foro Sozial Iraunkorraren baitan egindako aurre-ariketan honako sufrimenduak identifikatu ziren:

Eskubide zibil eta politikoak

- Askatasuna
- Egia
- Erbesteratzea, behartutako irtetea
- Salbuespenezko legedia
- Jazarpena eta zirikatzea
- Polizia kontrolak
- Atxiloketa prebentiboak
- Komunikazioa
- Deportazioa
- Parte hartze politikorako eta biltzeko eskubdieak

Osootasun fisiko/psikikoa

- Zauriak, ondorio fisikoak
- Ondorio psikologikoak
- Tortura
- Bahiketa
- Jazarpena, errepresaliak, boikota
- Emakumeen kontrako biolentzia espezifikoa
- Estortsioa
- Difamazioa
- Inkomunikazioa
- Mehatxuak
- Senitartekoen umiliazioa

Askatasuna

- Kartzelaratze prebentiboa
- Kondena luzapenak
- Mehatxuak
- Bahiketak

Salbuespenezko legedia

- Dispersioa
- Espetxe klasifikazioa
- Bigilantziarako apaitegi zentrala
- Osasun arretarako eskubidea
- Hezkuntza eskubidea
- Komunikaziorako eskubidea
- Mugimendu askea
- Polizia jarraipenak
- Ofizioko abokatuen inposizioa
- Forentse-medikuen inposizioa
- Justiziaren erabilera arbitrarioa

Efektu/presio ekonomikoa

- Fidantzak
- Isunak
- Hondasunen kontrako erasoak
- Zerga iraultzailea

Hastapenetako kategoria horiek, ordea, 4 multzo zabalagoetan berrordenatzea erabaki zen beranduago, sufrimenduak marko orokor ahalik eta objektiboenean antolatzeke eta, horrela, egitura sinpleagoa eta argiagoa emateko “kartografiari”:

1. Bizitzeko eskubidearen urraketa eragin duten sufrimenduak.
2. Ekonomiarekin lotutako ondorioak eragin dituzten sufrimenduak.
3. Eskubide zibil eta politikoak urratu dituzten sufrimenduak.
4. Osotasun fisiko-psikikoa kaltetu duten sufrimenduak.

Kategoria horiexek baliatu dira ostean antolatutako lan saioetan, jendarte zabalarekin sufrimendu mota anitzak idenitifikatzea helburu.

Kategoriei dagokienez

Aurrez definitutako 4 kategoriak lan saioetan ontzaketat jo dira. Identifikatutako sufrimendu mota anitzak testuinguratzeko baliagarriak izan dira eta kategoria berrien beharrik ez da sortu.

Hala ere, egindako bi lan saio publikoetan, sufrimendu batzuk kategoria bat baino gehiagotan kokatzea posible zela ondorioztatu zen:

Gernikan

- “Bizitzeko eskubidearen urraketak” eta “osotasun fisiko-psikikoa kaltetu duten sufrimenduak” kategorien artean:
 - Duintasunez bizitzeko eskubidea.
 - Heritza mehatxuak.
 - Torturaren ukazioa.
 - Behartutako desagerpenak.
 - “Sindrome Norte” delakoa.
 - Bizkartzainarekin bizi beharra.
 - Komunikabideek modu intenzionatuan eragindako mina.
 - Jazarpena eta horren ondoriozko behartutako erbesteratzea.
- “Bizitzeko eskubidearen urraketak” eta “Eskubide zibil eta politikoak urratu dituzten sufrimenduak” kategorien artean:
 - Preso eta iheslari politikoaren existentzia.
 - Salbuespenezko legedien aplikazioa.
 - Gatazka politikoaren ukazioa.
 - Jazarpen poliziala eta honek sorrarazten duen beldurra, panikoa.

Bilbon

- **“Bizitzeko eskubidearen urraketak” eta “Eskubide zibil eta politikoak urratu dituzten sufrimenduak” kategorien artean:** Zilegi ez diren biolentzia mota batzuen justifikazioa, borroka antiterroristaren mekanismoa izanagatik.
- **4 kategoriatan:** Dispertsioa, preso dauden pertsonak euren senitartekoengandik nahita urrunduta mantentzea.

Hortaz, ondoriozta dezakegu, orokorrean, jendarte zabalean “bizitzeko eskubidearen urraketak” ez dela soilik ulertzen heriotzari lotutako zerbaiten modura. Horrez gain, bizi kalitatearen gabezia edo bizitza kondizioen okertzea eragin duten sufrimenduak ere, termino berdinetan ulertzen dira.

Identifikatutako sufrimendu kopuruari dagokionez

Lan saio guztietan jasotako ideiak kontutan hartuta, honakoak dira gehien errepikatzen diren sufrimenduak edo sufrimendua eragin duten gertakariak:

- Heriotzak.
- Beldurra.
- Tortura.
- Dispersioa eta honen ondorio ekonomikoak.
- Aurreiritziak eta estereotipoak: ideologia arrazoiengatik, afiliazio arrazoiengatik, aisialdi inguruagatik...

Horiez gain, beste honako sufrimendu motak identifikatu dira maiztasun handiarekin:

- Estortsio ekonomikoa.
- Isunak.
- Langabezia eta lan diskriminazioa.
- Euskal Herriak gatazkaren ondorioz jasandako bisitari kopuruaren galera, ondorio ekonomiko kaltegarriak.
- Parte hartze politikorako eta biltzeko askatasunaren urraketa: ilegalizazioak, proiektu politiko eta sozialen kriminalizazioa.
- Mehatxuak.
- Poliziaren akosoa, jazarpena, zirikatzeak.
- Salbuespenezko espetxe politika.
- Osasunerako eskubidearen urraketa espetxeetan.
- Adierazpen askatasunaren urraketa.
- Eskoltarekin bizi beharra.
- Familia bizitza normalizatua gauzatzeko ezintasuna.
- Genero arrazoiak direla medio jasandako biolentzia eta diskriminazio espezifikoa.
- Isiltasuna.
- Indiferentzia.
- Gorrotoa.
- Enpatia eza.
- Hitz egiteari, iritzia emateari beldurra.

Honakoak, aldiz, behin baino gehiagotan errepikatu dira, nahiz aurrekoak baino maiztasun txikiagoarekin:

- Behartutako desagertzeak.
- Ondarearen aurkako erasoak.
- Fidantzak
- Boikotak: negozioen kontra, marka jakinen kontra...
- Seguritate publiko eta pribatuaren erabilera neurrigabea.

- Gatazka egoera modu interesatuan mantendu nahi izatea onura ekonomikoa ateratzeko.
- Bahiketak.
- Bizitza proiektua duintasunez nahi den tokian eraikitzeak eskubidea urratzea.
- Deportazioak
- Erbesteratzeak.
- Atxiloketa prebentiboak eta sarekadak.
- Doktrina politikoaren inposizioa.
- Biktimen arteko diskriminazioa, kategorizazioa.
- Biktimarioen inpunitatea.
- Biktimen minaren erabilera interesatua.
- Komunikabideek modu intenzionatuan jokatu duten papera.
- Askatasun sexualaren kontrako erasoak.
- Euskalduna izateagatik edo euskaraz hitz egiteagatik jasandako erasoak.
- Hiri espazioaren segregazioa, "guetizazioa".
- Arrazoi linguistikoak direla medio pairatutako jazarpena.
- Arrazoi soziologikoak direla medio pairatutako jazarpena.
- Proiektu politiko batekin publikoki bat egiteko beldurra.
- Biolentziaren legitimatzeak eragindako mina.
- Inpotentzia.
- Haserrea.
- Izu-ikara.
- Ezjakintasuna, informazioa lortzeko ezintasuna.

Hortaz, ondoriozta dezakegu, giza eskubideen urraketa larriak diren heriotzak, erahilketak edo torturak gatazkak eragindako sufrimendu nagusitzat identifikatzen direla. Baina, hala ere, horiekin batera, pertsonen egunerokotasuna kolpatu duten eta ondorio sakonak eragin dituzten bestelako sufrimendu kategoria batzuk ere oso larritzat hartzen dira, hala nola: dispertsioa eta honen ondorioak (istripuak, bereziki); aurreiritziak eta estereotipoak; edo beldurra.

Azken honi dagokionez, identifikatutako kategoria zabalena izan da, heriotzekin batera. Forma eta mota anitzetako beldurrak jaso dira kartografiaren baitan. Komunitate guztietako pertsonen bizipenen parte izan den sentimendua da beldurra, transbertzala guztiz.

Horrez gain, pertsonen osotasun fisiko-psikikoa kolpatu duten sufrimenduen atalari erreparatuta, ohartuko gara pisu oso handia dutela gatazkaren ondorio emozionalek. Norbanakoei gatazka pertsonalki nola bizi izan duten galdeginda, 25etik gora emozio identifikatu ditugu sufrimenduaren kartografiaren baitan. Hori kopuru benetan zabala eta, Foro Sozialaren Iritzitan, gatazkak euskal jendarte osoagan modu batera edo bestera eragindako zaurien erakusle ezinhobe da.

Berezitasunak

Orokorrean, antolatutako lan saio ezberdinetan identifikatutako sufrimendu motak antzekoak izan badira ere, bakoitzean parte hartu duten pertsonen adina, soziologia, jatorri kulturala... ezberdina izaki, identifikatutako sufrimendu motetan zenbait berezitasun dektatu dira:

- 18-30 urte arteko gazteek eskusiboki parte hartu zuten Bilboko saioan, gainontzekoetan aipatu ez ziren zenbait sufrimendu mota identifikatu ziren:
 - Iritzia publikoki emateko beldurra.
 - Estigmatizazio sozialak sorrarazten duen beldurra.
 - Estereotipoak eta doktrinak: itxura fisikoa, jatorria, arrazoi soziolinguistikoak... bakarrik aintzat hartuta jasandako lerratzea eta diskriminazioa. Etiketatzea.
 - Isiltasuna, gatazkaren inguruko informazio falta, gatazkaren inguruan hitz egiteko espazio falta. Indiferentzia.
 - Eskola barruan, klasean, jasandako diskriminazioa, gatazkarekin harremanatutako arrazoiak direla medio.
 - Hiriko espazio fisikoaren polarizazioa.
 - Drogak eragindako sufrimenduak, ingurune jakin batzuetako gazteria antolatuaren kontrako tresna politiko gisara erabilia izan denean.
 - Kultura emozional pobre baten garapena, emozioei atentziorik ez jatzeari, gogortasuna, sendotasuna transmititzeko. Maskulinitate eredu tradizionalarekin oso harremanetan dauden baloreak.
- Horrez gain honako kategoriei beste saioetan erreferentzia egin bazaie ere, 18-30 urte arteko gazteek indar gehiagorekin eta sarriagotan aipatu zituzten:
 - Gatazkaren ondoriopeko familia desegituraketa eta horrek pertsonen garapen sozialean dituen eraginak.
 - Genero arrazoiak direla medio jasandako erasoak/diskriminazioak/urraketak: emakume izateagatik, sexu aukeragatik...
 - Indarkeria matxista gatazkaren testuinguruan, osotasun fisiko/psikikoaren kontra.
 - Gatazka batzuentzat ekonomikoki errentagarria izan dela ikustek eragiten duen mina. Errentagarritasuna lortzeko gatazka nola "elikatu" den ohartzea (interes politikoak, ekonomikoak, ideologikoak,... direla medio).

7. ONDORIOAK

A. Ezagutu eta ezagutzera eman, ez errepikatzeko

“Sufrimenduaren kartografia integralerantz” ekimenean jaso ditugun min guztiak, giza eskubideen urraketa izaera legala izan ala ez, gatazka berberaren ondorio dira. Hori dela eta, beharrezkoa da guztiak integralki aintzat hartzea, gatazkaren dimentsio erreala ezagutu nahi bada, behinik behin.

Egia jakitea, gertatu dena ezagutu eta ezagutzera ematea, biktima orenen oinarrizko eskubide izateaz gain, pairatutako tragedia berriro ez errepikatzeko berme bakarra da.

Foro Sozial Iraunkorraren iritzitan, euskal jendartea urtetan banatu duten lubakiak estali eta enpatia lantzeko momentua heldu da, orain artean erreparatu ez diogun horri erreparatzekoa. Ezinbestekoa da gertatu diren sufrimendu guztien inguruan behingoz konplexurik gabe jardutea eta pertsonok horiek nola bizi izan ditugun aztertzea, memoria indibidual eta kolektiboa osatzeko bidean aurrera egiteko eta bizikidetzak berria eraikitzeko.

Zentzu horretan, “sufrimenduaren kartografia integralerantz” bezalako ariketek funtzio garrantzitsu bat bete dezakete: ezezagunak zitzaizkigun errealitateak hautemateko, gure begiz ikusteko eta ulertzeko aukera eskaintzen digute, horrela bakea, bizikidetzak eta giza eskubideen errespetua oinarri dituen gizarte berria eraikitzeko norabidean ekarpen xume baina sendoa eginaz.

B. Pertsona adina esperientzia, eta esperientzia adina sufrimendu

Kartografia honek aditzera ematen digu gatazkaren baitako sufrimenduak oso anitzak izan direla: Euskal Herrian azken mendean bizi izandako edozein pertsonak esperientziatu du, modu batera edo bestera, gatazka. Euskal jendarte osoarengan eragin du, familia politiko guztiengan, adin tarte orotan. Horren adierazle dira, adibidez, osotasun fisiko-psikikoa kaltetu duten sufrimenduen atalean identifikatutako 25etik gora emozioak: isiltasuna, indiferentzia, gorrotoa, infantilizazioa, antsietatea, ezinegona, frustrazioa, amorrua, inpotentzia, haserrea, beldurra...

Hortaz, euskal gatazka, erpin, alde eta kurba ugari dituen fenomeno konplexu bat izan dela esan dezakegu, eta horren baitan bizi izandako sufrimendu guztiek horren lekukotasuna ematen digute.

Gainera, sufrimendu eta sentimendu pluraltasun honek ere aditzera ematen digu gatazkek gutariko bakoitzagan, komunitate bakoitzagan, izan duen efektua ezberdina eta anitza izan dela. Hain zuzen ere, hori dela eta elkarbizi dira egun euskal gizartean gatazkaren inguruko kontakizuna egiteko modu anitzak.

Ez da harritzekoa, gertatu dena kontatzerako garaian, bereziki azpimarratzea bakoitzagan eragin zuzena izan duen hori zer izan den. Are gehiago, gure ustetan, hori beharrezkoa da, esperientzia bakoitzak gertatutakoa hobeki ulertzen lagunduko digun matiz bat gehitzen baitu. Horixe da, funtsean, memoria inklusiboa.

Gertatu dena gogoratuaz, eta berriro ez errepikatzea bermatzeko, memoria plurala eraikitzea ezinbestekoa da. Eta horretarako, errelatoen, kontatzeko moduan, arteko elkarbizitza da beharrezkoa.

Edozein kasutan, garrantzitsuena honakoa da: ziurtatzea, ezinbestean, elkarbizi behar diren esperientzia horiek guztiak (eta esperientzia horiek guztiak kontatzeko moduak) gertatu den oro aintzat hartzen dutela, eta inork, nahita edo nahi gabe, ezer ez duela ezer kontatu gabe uzten. Horretarako, “sufrimenduaren kartografia” erakusle interesgarria izan daiteke.

C. Sufrimenduak ez du ideologiarik

Sufrimendu berberak komunitate ezberdinetako kideen artean errepikatzen direla ere argi erakutsi digu sufrimenduaren kartografiak. Horren adibide da “beldurra”: guztiz transbertsala den kategoria da hori, gatazka bizi izan duten pertsona denek modu batera edo bestera sentitu dutena eta testigantza ezberdinenetan errepikatzen dena.

Foro Sozial Iraunkorarentzat, bizipen horiek guztiak ezagutzea eta kontutan hartzea ezinbestekoa da. Ondokoa entzunaz eta bizipen berbera izan duela ikusita, gatazkaren dimentsio erreala ezagutzeko aukerak handiagoak izango direlako. Azken finean, pertsonalki jasandako minak arerio izandakoagan identifikatzeak, elkar hobeki ulertzea erraztu baitezake, zubiak eraikitzea, lubakiak utzi eta elkar ulertzea.

Urte luzeak daramatza euskal jendarte zabalak giza eskubideekiko errespetua oinarri duen gizarte berria eraikitzeko erronkari tinko helduta. Ekimen honek, norabide horretan, zubiak eraikitzeko bokazioa izan du.

D. Erreparatzeko, ezagutu

Gatazkaren baitan pertsonak jasan dituzten sufrimendu guztiak ezin dira maila berean kokatu. Gertakari bakoitzaren testuinguru politikoak, eragileak, eragindako efektuak...

determinatu behar du nolakotasuna, eta horren arabera, administrazioak erabaki beharko du zer nolako aitortza eta erreparazioa den beharrezkoa. Hori ez da, inondik inora, Foro Sozial Iraunkorraren lana.

Hortaz, ezinbestekoa da jakitea zein eskubide urraketa jasan dituzten euskal gatazkaren biktima izan diren pertsonak, eta zenbateraino ziurtatzen den gaur egun, nazioarteko zuzenbidearen arabera, pertsona horiei guztiei dagokien justiziarako eskubidea. Hau da, erreparatu ahal izateko, gertatu den oro ezagutzea da beharrezkoa.

Zentzu horretan, panorama benetan zabal eta plural baten berri eman digu sufrimendua-
ren kartografiak.

Giza eskubideen urraketek dagokienez, Giza Eskubideen eta Oinarrizko Askatasunen Euro-
pakoko Hitzarmenean zehazten da pareko eskubide urraketek pareko aitortza behar dutela.
Baina, egun, tamalez, gatazkaren hainbat eta hainbat biktimek jasaten duten diskrimina-
zioa eta kategorizazioa oraindik agerikoak dira.

Gainera, paradoxikoa badirudi ere, dagokien aitortza jaso ez duten pertsona horiek birbik-
timazio egoera larri bat jasaten ari dira. Sufrimenduaren kartografiaren baitan identifika-
tutako sufrimenduak izan dira, esaterako, “biktimen erabilera interesatuak sorrarazitako
mina” edota “biktimen kategorizazioak sorrarazitako amorrua”.

Euskal jendarteak ez du asmatu oraindik problematika honi erantzun integral bat ematen,
azken urteotan aurrerapausoak eman baditugu ere.

Baina, horrez gain, badira beste hainbat eta hainbat sufrimendu mota ere, esan bezala,
giza eskubideen urraketa izan gabe, gatazka bermeeekin gainditzeko, aintzat hartu beharko
direnak. Gertatu dira, sufritu ditugu, eta berriro ez gertatzea nahi badugu, erantzun bat
beharrezkoa da.

Foro Sozial Iraunkorraren iritzitan, sufrimendu bakoitzari bere aitortza forma propioa da-
gokio. Baina guzti-guztien aitortza posible egitea ezinbestekoa da, horretarako dagozkion
bideak jorratuaz eta ahalik eta akordio politiko zabalenak oinarri hartuta.

Jarraian aipatzen ditugun hauek baliagarriak direla frogatu izan dute eta, Foro Sozial
Iraunkorrarentzat, gatazkaren erreparazio integralerako bidean, oinarri-oinarrizkoak dira:

- Euskal Herriko eremu administratiboetako Gobernu eta instituzioek eskaintzen dituz-
ten baliabideak helburu honen zerbitzura jarri, horrela lege berriak idatzi eta martxan
jartzeko, Gobernuen sustapenpeko ikerketa lanak egiten jarraitzeko, aitortza eta erre-
konozimendurako ekitaldi publikoak antolatzeko,...
- Biktimen eta sufrimendua jasan duten pertsonen beharrei erantzuteko bestelako meka-
nismo berriak garatzea, bilatzea, saiatzea eta praktikara eramatea, horretarako gizarte
zibileko eragileen, alderdi politikoen, gobernu eta instituzioen eta norbanakoen elkar-
lana bilatuz.

- Argitu gabe dirauetan kasuei dagokienez, gehiago ikertzea eta dagokienei beren arduen jabe egin daitezela exigitzea, betiere, biktimek egia jakiteko duten eskubidea gehiago ez urratzeko helburuarekin.

E. Sufrimenduaren kartografia integrala etorkizunean

“Sufrimenduaren kartografia orokor baterantz” ekimenaren helburu nagusia izan da eza-gutzea eta ezagutaraztea zein izan diren pertsonak urte luzetan zehar euskal gatazkaren testuinguruan bizi izan dituzten sufrimendu mota anitzak.

Guztira, 125 kategoria ezberdin identifikatu ditugu. Horien baitan daude sufrimenduak, giza eskubideen urraketak eta, kasu batzuetan, horiek izan dituzten eraginak.

Horiek guztiek aditzera ematen digute euskal gatazkaren konplexutasuna zer nolakoa izan den. Aditzera ematen digute, gatazka errepikatuko ez denaren bermeekin gaintzeko, lan andana dagoela egiteke. Eta aditzera ematen digute, euskal jendarte osoak zenbaterainoko mina jasan behar izan duen.

